

“GEHIEN GUSTATU ZAIGUNA ‘WIKIA’ EGITEA IZAN DA”



Itziar Ondarra | Elgoibar Ikastola | DBH

Itziar Ondarra Elgoibar Ikastolako “Elgokraks” taldeko arduraduna da, Kosmodiseako Ikono Planetan DBH kategoriako lehen postua lortu duena.

Nola jaso du taldeak Ikono Planetaren aldetik jasotako saria?

Ilusio handiz. Ez genuen espero eta oso pozik gaude.

Lana egiterakoan, zer iruditu zitzaizuen zailena?

Programaren bat erabiltzea zaila egin zaigu, baina Kosmodiseako liburuan oso argi azalduta zeudenez, praktikarekin ikasten joan gara.

2011-2012 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?

Wikia egitea. Asko gustatu zaigu. Arduradun batzuk izendatu ditugu, baina guztion artean egin dugu.

Eta zeintzuk dira jarduera honetan parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?

Orokorrean, oso ongi moldatu gara. Gainera, laguntza behar badugu, eskatu egiten dugu.

Nola egiten diozue aurre Kosmodiseako gainerako ekimenari?

Ilusioz eta lanerako gogoz. Eta ikasteko programa dela eta bertan talde oso onak daudela lehian ahaztu gabe.

Zein ezberdintasun ikusten dituzu aurtengo eta beste urteetako edizioetan? Egokiak eta onuragarriak al dira Kosmodisearen funtzionamenduan txertatutako aldaketak?

Grapho-Wiki jartzea iruditu zaigu egokiena. Simulatzailera oso ondo dago, baina gure ustez, gero eta zailagoa jartzen dute.